

Asteazkena, 2013ko irailak 25 - 10:11

Plaza

bilatu...

Bilatu

Hasiera BerriaTB Parte Hartu Blogak Bereziak Kanalak Zuzenekoak RSS Twitter

Paperekoa PDFn Iragarki laburrak Hitza

Harian | Iritzia | Kirola | Agenda | Plaza

Berria.info » Papereko Edizioa » Plaza

2013-09-25

Sagar uztaren ongietorria bihar

Sagardoa egiteko garaia da, eta bihartik hasita XIII. Sagar Uzta ospatuko dute Astigarragan

ERREDAKZIOA DONOSTIA

Iritsi dira lehenengo sagarrak sagardotegietako dolareetara, eta horrekin batera, aurtengo sagardoaren muztioa. Hori ospatzeko jaia antolatu dute hurrengo egunetarako Astigarragan, sagardoaren herrian (Gipuzkoa). Bihar hasiko dira ekitaldiak; egun nagusia, hala ere, igandea izango da.

Sagarrekin egindako pintxoekin pintxo-potea egingo dute, bihar, 19:00etan. Etzi, berriz, Euskal Herriko sagarren dastatze gidatua egingo dute Roxario jatetxean. Izena emateko 943 550 575 telefonoan edo info@sagardoarenlurraldea.com helbidean egin daiteke.

Igandean, Sagarraren Eguna

Sagardoa nola egiten duten erakutsiko dute igandean, 11:00etan.. Sagarrak bildu eta zanpatuko dituzte, eta handik ateratako muztioa probatzeko aukera egongo da. Hura egiten ari diren bitartean, azoka egongo da. Sagarren erakusketa eta dastatzeez gain; saskiak nola egin eta sagarrondoak nola txertatzen dituzten erakutsiko dute. Sagardotegien arteko sagar biltzea ere izango da, 13:30ean. Aurren, lehenengo aldiz, Idiazabal gaztaren dastatze gidatua antolatu dute. Haur eta helduek parte har dezakete gazten ezaugarriak ezagutzeko ekitaldi horretan.

Albisterik...

IRAKURRIENAK

Bozkatuenak

Bidalienak

1

Mikel Otegi ezarritako zigorra berrikusiko du gaur Auzitegi Gorenak

2

"Superheroiei" omenaldia

3

Hoge urte erantzunik gabe

4

"Agindu honek ate bat irekitzen du frankismoko krimenak salatzeke"

5

Aranalderen aurkako euroagindua onartu du Pauek; Zubillagarena, ez

Hasiera Euskal Herria Ekonomia Mundua Kirola Kultura BerriaTB Parte Hartu Blogak Bereziak Paperekoa RSS Twitter

© Berria.info - Euskal Editorea S.L.
Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140
Telefonoa: 943 304 030 / Faxe: 943 590 172
berria@berria.info - www.berria.info
Lege Informazioa



Laguntzaileak:



1 de 1

25/09/2013 10:21